PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Igariko barrakoia

Memorial honek **Igariko barrakoia** du izena
eta Zaraitzuko haranean dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Zirautziko harana non dagoen ikus dezakezu.

1939. urtetik aurrera frankistek
Igaritik Bidankozera doan errepidea eraikitzeko
2.300 preso baino gehiago
bortxazko lanak egitera behartu zituzten.
Bortxazko lanak pertsona batek
behartuta eta dirurik jaso gabe egiten dituen lanak dira.

1941. urteko ekainean frankistek
preso hauek beste leku batzuetara eraman zituzten.
Preso horietako gehienak leku hauetakoak ziren:

- Asturias
- Bartzelona
- Bizkaia

- Granada
- Jaen

2018. urtean Memoriaren Nafarroako Institutuak
eta Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak
nazioarteko boluntariotzar-esparru bat antolatu zuten.

Boluntariotzar-esparru horretan
munduko hainbat herrialdetako gazte-taldeek
barrakoi hau eraiki zuten.
Barrakoi bat txabola antzeko bat da.
Bertan presoak oso egoera txarrean bizi ziren.

Barrakoi hau Igaratik Bidankozera doan
errepidea eraiki zuten presoek
lo egiteko erabiltzen zituzten barrakoien berdina da.

Esteka honetan
Igaratik Bidankozera doan
errepideari buruzko bideo bat ikus dezakezu.
Klikatu hemen:

https://www.espaciosdememoria.com/eu/memoria-tokia/igariko-barrakoia#landmark-video-1

Hemen hondakinen argazki bat ikusiko duzu,
jatorrizko kuartelarena:



Hemen gazteek egindako barrakoiaren
argazki bat ikus dezakezu.
Barrakoia jatorrizko barrakoi baten hondakinen ondoan dago:



Hemen Luis Ortiz Alfauren argazki bat ikus dezakezu
omenaldi batean.
Luis Igaratik Bidankozera doan errepidea
eraiki zuen presoetako bat da.

